

Landa, mendia eta Pirinioen problematika

Euskal Herriko azaleraren %7,55 (1.579,83 km²) urbanoa dela esan daiteke, eta gainerako %92,45 (19.345 km²) landa eremua, ezaugarri orografiko eta geografikoei erreparatuz gero.

Landa eremuaren baitan, nekazaritza garatzeko zailtasunak dituen eremua alegia, "mendialdea", 10.253 km²koa da, Europako Batasunak adierazitako irizpideen arabera (ikus mapa). Mendialdeko orografia duten euskal eskualdeetan, mendi eta kale hartuta, 1.098.627 biztanle bizi dira, Euskal Herriko biztanleria osoaren %35,1.

Azpimarratzekoa da, edonola ere, orografia hau izanik ere, mendialdeko eskualde zenbaitetan (edo hauengandik hurbil) gune ekonomiko eta industrial azkarrak kokatzen direla. Hau da, elikagaiz eta zerbitzuz hornitzeko behar intentsiboa duten eremuak. Mendialdeko nekazaritzak jasotzen duen babes maila txikiarekin ez da erraza gertatzen behar hori asetzen duten jarduera ekonomikoak eta herriak indartzea. Hau da, oraindik orain eraikitzeko dago Euskal Herrian eremu urbano eta landa eremuen arteko osagarritasun ekonomikoa bermatuko duen eredu ekonomiko eta soziala. Euskal landa eremuaren potentzialitatea ez ohi da aintzat hartu bere osotasunean.

Landa eremua zein den katalogatzeak eta horren barruan mendialdea zein den adostekak berebiziko garrantzia du Euskal Herriaren nazio garapenerentzat, bai lurralde antolamendu irizpideak adosteko, bai egitasmo ekonomikoa zein gizarte kohesiorako politikak finkatzeko. Euskal Pirinioetan hamarkadaz hamarkada



"Mendi nekazaritzan" jarduteko Euskal Herriko "mendialdea" eskualdeka.

Edukia

Sarrera	1
Euskal Pirinioen problematikak	2-3
Baliabide grafikoak	4-5
Adituen analisiak	6-8
Gogoeta	9



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

Pirinioaldea: indartu beharreko geografia

Gaur egun, Euskal Herria mundu mailan aberastasun mailarik handienetakoa duten lurraldeen artean izan arren, bere lurralde eremu zabal batek nekez ezagutzen du aberastasun horrek dakarren ongizaterik.

Euskal Pirinioekin lotutako udalerriak dira horren adibide, eta Euskal Herrian egoerarik larriena bizi dutenak. Orografikoki lurralde eremu menditsuena izateaz gain geografikoki hiriburu eta gune ekonomiko nagusietatik urrunen dauden udalerriak dira. Halaber, mugako zonaldeak dira, non administrazio zentralak ez duten interes handiegirik bertako herritarren egitasmoei jarraituz garapen sustatzeko, are gutxiago euskal identitatea indartzeko balio baldin badu.

Izan ere, "Landa eremua" deitzen dugun horren zati handi bateko komunitateek (Udalerri, herri, partzuer-go, kontzeju, auzo...) eta bertako herritarrek zailtasun



handiak dituzte gure gizartean ohikoak diren zerbitzu publikoak eta garapen ekonomiko zein sozialerako baliabideak eskuratzeko urruntasun geografikoa medio. Lana aurkitu, lantokira iritsi, edo eskola zein osasun zerbitzuen eskuragarritasun zailak orotariko arazoak sortzen ditu zonalde hauetako herritarren artean.

Zenbait datu esanguratsu

· 1910 eta 2012 bitartean biztanleen erdia galdu du, egun 36.829 biztanle ditu (2012)

· Ehun gazteko 168 adineko daude, Euskal Herrian baino 30 gehiago

· Enplegatzaile nagusiak nekazaritza, merkataritza-ostalaritza eta administrazioa dira

· 2. Hezkuntzako institutura iristeko 22 km egin behar dituzte batzaz beste, euskarazko zentro bada 35km

· Autonomoen tasa ia bikoitza da (%33,6).

· Establezimendu industrialak %12 dira, gehienak txikiak eta maila teknologiko baxukoak.

Problematika nagusiak:

Mendialdeko eskualdeek bizi duten gainbehera ezaguna da Europako Batasunean. Euskal Herrian, Pirinioetan bereziki, aipatutako fenomenologia guztiz betetzen da. Hona horren ondorio diren arazo nagusiak:

Periferizazioa

Euskal Pirinioetako udalerriak dagokion hiriburu administratibotik urrun daude; 60 kilometrotik gorakoak dira distantziak. Periferizazioa ez da, ordea, geografikoa bakarrik, administratiboa ere bada: lurralde eremu hauen biziberritzea edo indartzea lehentasunen artean ez daudenez, Pirinioetako bailaren garapenerako egitasmoak asmoz eta baliabidez urriak gertatzen dira.

Populazio galera

Lau udalerrietatik batek bakarrik jasan du biztanleriaren gorakada; lurralde eremurik handienez galdu egin da biztanleria. Galera horretan, emakume gazteak dira bizilekua aldatzen duen kolektibo nagusia, aukera profesional murriztak medio.

Zahartzea

Zahartze indizea Pirinioetan (168,7) Euskal Herrikoaren gainetik dago (139,2), eta, ondorioz, belaunaldien arteko ordezkatzeari defizitarioa da; hau da, erretiroa hartzen dutenak baino gutxiago dira heldutasunera iristen direnak.


Zerbitzuen eskuragarritasuna

Ikastetxera, ospitalera edo oinarritzko hainbat zerbitzutara iristeko distantziak batzuetan bestekoa baino askoz altuagoak dira.

Honela, ohikoa da osasun zentrori joan-etorrian 20km egitea edo euskarazko instituturara 70km.

Jarduera ekonomikoak eta enplegua

Lehen sektorearekin loturiko jarduerak (nekazaritza eta basogintza) duten indarra da lurralde eremu honen ezaugarri ekonomiko nagusia. Halaber, indartsua da ostalaritza-turismoa oinarri duen zerbitzuen sektorea. Sektore hauetatik kanpo enplegu aukerak txikiak dira.



Zahartze indizea 2013an (%)
(Iparralde 2010)


Iturria: INE eta INSEE

Hautatutako zonalde geografikoaren zenbait ezaugarri sozioekonomiko

ALDERAKETA: HAUTATUTAKO ZONALDEA EUSKAL HERRIAREKIN			
	EUSKAL HERRIA	PIR.HAUT.	
BIZTANLERIA ETA LURRALDEA			
Biztanleria	3.117.425	36.918	
Biztanleriaren bilakaera (1991/2011)	8,5	-5,4	
Jaiotza tasa	9,9	7,8	
Heriotza tasa	9,0	11,2	
Biztanleria: <u>hazk. begetatibo metatua (02/11)</u>	0,68	-3,77	
Azalera	20.924,9	3.374,6	
Biztanleriaren dentsitatea	149,0	10,9	
GIZARTEA			
Biztanleriaren zahartzea indizea (65/0-14 ur.)	137,7	169,6	
Menpekotasun indizea (haur zein adinekoak)	51,3	63,5	
Autonomoen tasa (%)	19,0	33,6	
Jarduera tasa	68,8	72,9	
Landunak 1. sektorea	2,5	22,7	
Landunak Industria	25,6	16,1	
Landunak Eraikuntza	9,5	11,7	
Landunak Zerbitzuak	62,4	49,5	
ZERBITZUEN IRISGARRITASUNA			
Oinarrizko eskolara distantzia (Km)	2,3	3,2	
Oinarrizko eskolara distantzia, euskaraz (Km)	7,4	14,0	
Institutura Distantzia (Km)	9,7	21,3	
Euskarazko Institutura Distantzia (Km)	19,0	35,4	
Osasun Zentrora distantzia (Km)	2,7	8,2	
Ospitalera Distantzia (Km)	17,9	26,6	
Euskaltegira Distantzia (Km)	9,7	11,1	
JARDUERA EKONOMIKOA			
Establezimenduak 10 jarduera adarretan (%)			
01. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	[2012]	2,0	21,5
02. Industria, energia eta saneamendua	[2012]	11,6	12,6
03. Eraikuntza	[2012]	13,6	11,3
04. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	[2012]	33,7	21,9
05. Informazioa eta komunikazioak	[2012]	2,3	0,8
06. Finantza jarduerak eta aseguruak	[2012]	4,2	2,6
07. Jarduerak higiezinekin	[2012]	3,6	1,3
08. Jarduera profesional eta laguntzaileak	[2012]	13,9	5,2
09. Herri Admin., Hezkuntza eta Osasuna	[2012]	8,2	13,3
10. Arteetako eta bestelako jarduerak	[2012]	6,8	9,5
Mikroenpresak industria sektorean (%)		68,1	75,7
Industriaren teknologia maila			
• Handia		1,5	0,0
• <u>Ertain-handia</u>		15,1	2,5
• <u>Ertain-txikia</u>		45,3	23,6
• Txikia		38,1	73,9
Nekazaritza zentsua			
<u>Nekazaritza ustiatzeak</u>	Bilakaera azken hamarkadan	-48,3	-24,8
	Mila biztanleko	11,90	79,72

Iturriak: EUSTAT, INE, INSEE, Nafarroako Gobernua, Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, Espainiako Sustapen Ministerioa, Espainiako Geografia Institutu Nazionala, CAMERDATA eta Seaska. *Ekoizpen propioa.*



Biztanleria osoaren bilakaera. Pirinioaldea, 1877/2013.



Iturria: INE eta INSEE

Biztanleriaren adin egitura Pirinioetan.

Biztanleriaren adin egitura Euskal Herrian.



Iturria: INE eta INSEE

Adituen analisiak



Eduardo Malagón

Ekonomia Aplikatua V Saila, Hegoa Institutua
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Mendiko eskualdeen etorkizuna

Herialde garatuetan, mendiko eskualdeak errealitate sozioekonomiko periferikoak bezala bilakatu dira. Aspaldidanik (eta are gehiago azken mendean), beraien ezaugarri geografikoek (orografia, altuera, klima, e.a.) mugatu dituzte erabat bere konexioak garapen ekonomikoaren zentro eta ardatz nagusiekin. Hori dela eta, garapen ekonomiko dinamika nagusietatik kanpo geratu izan diren eskualdeak dira, gainbeherakada mantso baina geldiezin batean murgildu direlarik. Beherakada hau gauzatu da, alde batetik, populazioaren murrizketan eta zaharkitzean, elementu gazteenak eta dinamikoenak alde eginez; bestetik, bere jarduera ekonomiko tradizionalen (abeltzaintza, basogintza eta beraiei lotutako industria txikia) atzerakadan, jarduera alternatiboek (turismoa, adibidez) aurrekoen pisu galera ordezkatzeko ahalmen mugatua aurkeztuz. Guzti honek ekarri du espazio hauen hustuketa demografiko eta sozioekonomikoa.

Hori guztia dela eta, mendiko eskualdeen atzerapenak botere publikoen interesa eta atentzioa deitu zuen, horren hastapenak Europa mailan Mendiko Eskualdeen inguruko 268/75 Direktiban topatzen ditugularik. Direktiba hau Europar Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) txertatu

arren, mendiko politika bat garatzeko egindako esfortzuak nahiko apalak izan dira bai Europar Batasunaren aldetik eta baita estatu zein erre-
gioetako administrazioetatik, esku hartze horiek beti egon direlarik landa garapen politiken marko orokorrean integratuak.

Bestalde, aipatu behar da ere, tradizionalki, landa garapen politika Nekazaritza Administrazioen eskutan egon dela, eta hauen ikuspegia izan dela nagusi planak eta egitasmoak martxan jartzeko orduan. Bitartean, administrazioaren beste esparru batzuk (hezkuntza, osasuna edo gizarte zerbitzuak, adibidez), irizpide urbano soilak jarraituz, ez diete behar bezala erantzun izan mendiko eskualdeen behar bereziei. Zerbitzu publikoen hornidura baldintza eskasek mezu garbia bidaltzen zieten bertako haur eta gazteei: "hemen aukera gutxi dago". Guzti honek agerian utzi izan du eskualde hauen garapenari aurre egiteko beharrezkoa den ikuspegia integral baten falta.

Beraz, etorkizunari aurre egiteko mendiko eskualdeak dauzkaten erronkak ez dira eskasak. Erronka guzti horiei aurre egiteko eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren derrigorrezkoa

<<Martxan jartzen diren politiken eta tresnen onuradunak mendiko eskualdetako biztanleak izan behar dira, sortzen diren enplegu eta errenta aukerak beraiei zuzenduz>>

da, elkarlanean oinarritutako gobernantza marko berritzaileak bere eraginkortasuna frogatu dutelarik, bertan eta Europako hainbat mendiko eskualdetan ere.

Esperientzia horiek ere aukeren itxaropen izpiak erakusten dizkigute. Alde batetik, mendiko eskualdeen aktiboen ugaritasuna eta beraien aprobetxamendu jasangarria: mendiko eremutan topa ditzakegu herrialde garatuetako natur baliabideen gehiengoa. Baliabide horiei atxikituta agertzen dira ondasun publiko oso garrantzitsuak: bioaniztasuna, karbonoaren finkatzea, paisaia, ur arroen kudeaketa, kultura eta ohiturak, etab. Sozialki hobezina den hauen hornidura maila mantentzeko derrigorrezkoa da eskuhartze publikoa, eta horren inguruan martxan jartzen diren politiken eta tresnen onuradunak mendiko eskualdetako biztanleak izan behar

dira, sortzen diren enplegu eta errenta aukerak beraiei zuzenduz. Bestetik, informazio eta komunikabideen teknologia (IKT) berriek aukerak handiak ematen dituzte jarduera eta profesional berriak mendiko guneeetan kokatzeko, jarduera ekonomikoak indartuz, errentak erakarriz, lanpostu berriak sortuz eta populazioa finkatuz.

Azkenik, IKT teknologiek ere mendiko eskualdeen konexioak gizarte urbanoarekin estutzen dituzte, fluxuak areagotuz. Konexio horiek mendiko eskualdeetako ondasunen eta zerbitzuen merkaturatze eraginkorragoa egiteko aukerak dakarte. Honela, mendiko aktiboen eta produkzioen balorizazioak agerian utzi beharko lieke mendiko biztanle beroiei beraien bizimoduak etorkizuna duela, eta ez soilik hiritarren aisiarako parke bat bezala.



Adituen analisiak



Iker Elozegi

Euskal Herriko Laborantza Ganbarako koordinatzailea

Euskal Pirineotan laborantza bizirik

Gaindegiaren Piriniotako ikerketa sozio ekonomikoak argi erakusten du Baxe Nabarre, Xiberua eta Nafarroako 103 herrietako egoera eta dinamika sozio-ekonomikoak alde ezkor batzu dituela: populazioaren galera, zahartzea edo zerbitzuen desagertze prozesua, besteak beste.

Argi da ere eremu hortan lehen sektoreak (berreziki laborantzak) pizu haundia duela, nahiz eta hor ere puntu ilunak agertzen diren: etxalde kopuruaren tipitzea eta honi lotua den etxalde haunditzea, ofizio hortarik duinki bizitzeko zailtasunak sortzen dituen egoera ekonomiko gogorra eta abar..

Garrantzitsua da oso Udalbiltzak eta bere Garapen eta Kohesio Fondoak hartu duen erabakia, hau da Pirineotako eremu hortan lan berezi baten egitea lekuko dinamikak azkartzeko. Laborantzaren ikusmoldetik gauza asko Europa mailan erabakitzen dira baina ez da ahantzi behar Europear batasuneko estatuetako gobernu eta ministroek erabakitzen dutela. Ez da ereahantzi behar gureganik hurbilago eta eremuan geldituz, Bordale edo Iruñako administrazioek dituzten eskumenen garrantzia.

Maleruski ez dirudi berriz negoziatzen ari den laborantza politikak bere oinarriak errotik aldatuko dituenik. Bere diru laguntzen banaketak berriz ere ez du enpleguarekin loturarik izanen, injustua izaiten segituko du eta etxaldeen desagertze prozesuan ez du oztoporik ezarriko. Hamarkadetan politika horrek egin dituen desmasiak ez dirudite beraz gelditzekotan!

Dena ez da ezkor Euskal Pirineotako mendietako laborantzaz... Azpimarratzekoa da Garazi eta Baigorriko eskualdea dela Europear mailan gehien gazte instalatzen den eremua. Dinamika azkar baten seinalea da hori, herrian bizi nahia, noski, bainan baita ere herrian bizitzeko tresnak eraiki izana, bai antolaketa eta bai ekonomiko aldetik. Biziki esperientzia interesgarriak badira, etsipenetik ilusiora pasatzeko ahalak badirela frogatzen dutenak!

Pirineoak bizirik ekimenak lagun ditzala halako proiektuak, modu ahal den eraginkorrenez.

Gaindegiaren gogoeta

Euskal Pirinioetan gertatzen ari diren fenomeno demografiko, sozial edo ekonomikoak ezagunak dira Europa osoan. Malagon jaunak bere ekarpenean adierazten duen bezala, nekazaritza sailari egokitu zaio zonalde hauetan egin beharreko politika finkatzea eta ikuspegi horretatik egin du (Europako Nekazaritza Politika Bateria-tuak diruz lagundutako ildoan arabera beti ere). Beraz, hezkuntza azpiegiturak, osasun arreta, biziberritze demografikoa, dibertsifikazio ekonomikoa, kohesio soziala... ez dira agendan egon bertako herritarren bultzadaz ez bada.

Honela, XXI. mendea hasi dugun honetan, Euskal Herriaren baitan desoreka nabarmenak agertzen zaizkigu hirigune eta landaguneen artean. Euskal Herrian inoiz sasoitsu izandako lurraldeak gaur egun gazterik gabe eta gero eta jarduera ekonomiko eskasagoarekin, etorkizun iluna dute.

Esandakoak, beraz, eginkizun zehatza dakar Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta sozialarentzat, landaguneen eta bereziki mendialdeko zonaldeen biziberritze integrala. Dela gaiari arreta jarriaz, dela garapen egitasmo sozialak edo instituzionalak sustatuaz, gaiak Euskal Herriko agenda sozial eta politikoan egon behar luke beste zenbait gai dauden gisan (langabezia, gizarte babesa, politika industrial...). Ez da ruralismo bukolikoa, lurralde estrategia da. Landa eremua ere Euskal Herria izateaz gain, hamarkadetan berariaz baztertua izan da, eta XXI. mendean ondasun estrategikoen gordailu ere badela badakigu. Lurralde garapen eredu jakobinoen ondoan Lurralde Garapenaren euskal paradigma behar dugu, hirigune indartsuetatik hasi, eskualde buruetatik pasa eta herri txikietaraino euskal geografia saretzen duen egitasmoa.



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Gaindegia guneak:

www.gaindegia.org

www.basqueinfo.net

Gaindegia plataformak:

www.atlasa.net

www.euskalgeo.net

Gaindegia sareak:



@gaindegia

@gaindegia_data

Laguntzaileak:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



**Garapen &
Kohesio Fundoa**